

Kultur eragile bat
galdu du Euskal Herriak

Jean Louis Maitia zendu da

Urteetan euskararen aldeko borrokalari izan dena, 55 urtetan hil da ustez bihotzekoak jota

Astelehen gauean hilik atzeman dute Jean Louis Maitia, Elkarreko lantokian. Gaueko bederatzia zirelarik, lantokiaren inguruan zebilen batek argia oraino piztua zela ikusita, hurbildu zen eta leihotik mugitzen ez zen gorputza ikusirik, jandarme deitu zien. Haiek gauerdian eman zioten Christiane Lapiqueri, Maitiaren andereari, senarraren heriotzaren berri.


Gorka Torre-Iñaki Petxarroman /
Baiona-Donostia

JANDARMEK adierazi zuten, Maitia Elkarren bulegoan hil zen arratsaldeko 19:00ak inguruan. Aurkitu zutenean, artean telefonoa eskuan zuen, eskegi gabe. Lehen hipotesien arabera, bihotzekoak jota hil zen Maitia, autopsia egin arte deus baieztatu ez duten arren.

Jean Luis Maitia, laborari familia baten semea, duela 55 urte jaio zen, Esterenzubin (Nafarroa Beherea). Zuzenbide ikasketak egin zituen Pauen eta Bordelen. 60ko hamarkadan, Enbata mugimenduko kide izan zen, eta Paueko euskal ikasleen taldeko animatzailea, *Egia* aldizkariaren inguruan. Ondoren, hamar bat urtez irakasle izan zen Marokon, lantzaile bezala, soldadutza egin ondoren.

Ipar Euskal Herrira itzuli zenean, 1972. urtean, Elkar argitaletxearen sortzeko lanetan aritu zen beste bederatzia lagunekin batera. Segidan, Baionako liburutegian ere hasi zen lanean. Euskal kulturarekin zuen konprometuz ez zuen mugarik, eta 1980tik aitzina, Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen elkartearen borroka luzaz eraman zuen Maitiak. Bi aldiz elkarte horretako lehendakaria izan zen -1980tik 1983ra, eta 1987tik 1993ra-, eta barne arazo larriak izan zirelarik, batez ere diru aldetik, kideak batzen eta aitzina egiten jakin zuen. 1982ko uztailaren lehenean, Bordeleko errektorearekin batera, Seaskaren eta Hezkuntza Nazionalaren arteko lehen hitzarmena izenpetu zuen, bi elkarten arteko hiru urteko elkarlana hitzartuz. 1983ko urriaren 14an, berriro ere hitzarmen bat izenpetu zuen errektorearekin, Seaskaren eta Estatuaren arteko lehen konbenioa gauzatu. 1989ko azaroaren 17an, beste konbenio bat izenpetu zuen, irakasleen egoerari buruz.

Euskararen alde egiten zuen lana goraiatzeko, omenaldi bat antolatu zioten 1995eko otsailaren 6an, Maulen, Euskal Kultur Erakundearen biltzar nagusian. Bestalde, espetxeratu aitzin, Mia-



Jean Louis Maitia, berriki.

ENBATA

rritzen egin nahi den eleanitzeko kolegio-lizeo baten alde jardun zuen, Eusko Jaurlaritzarekin, Hezkuntza Nazionalarekin, Miarrizteko Herriko Etxearekin eta ikastolekin batera.

1992an, Jean Louis Maitiak eta beste lau lagunek antolatuturik, Abertzaleen Batasunaren sustengu talde batek ehundaka izenpetze bildu zituen, zerrenda horrentzat bozkatzera deituz eskualdeko eta kantonamenduetako hauteskundeetan.

1996ko irailaren 11n, Polizia Judizialak sei lagun atxilotu zituen Baionan, haietariko bat Jean-Louis Maitia, Barne Ministerioak azaldu zuenez, ETAko ustezko kide izateagatik. Maitiari gaizkile elkarteko kide izatea leporatu zioten eta espetxeratu zuten. Poliziako ikertzaileak Zabal liburutegiko diru kontuak itxi eta ikertzen hasi ziren.

Bederatzi hilabete espetxean egon ondoren, joan den ekainean libre geratu zen, Levert epailearen aginduaren aurka joanez. Hala ere, debekatu zioten Zabal liburutegian lan egitea, eta ondorioz Elkarren lantokian ari zen. Azken unera arte euskara eta euskal kulturaren alde lanean aritu zen. Joan den astelehenean bertan Miarrizteko Didier Borotra auzapezarengana joan zen, Miarrizteko lau hizkuntzako kolegio-



Seasko lehendakari zela Lionil Jospin orduko Hezkuntza ministroarekin egindako bilkura batean.

BOB EDME



Maulen omenaldia egin ziotenean, prefetaren eskutik makila jasotzen.

BOB EDME

erreakzioak

Mailux Zaldunbide ♦ Seaskako lehendakari ohia

«Buruan ideia bat zuelarik bururaino eramaten zuen. Haren helburua ezberdintasun politiko guzien gainetik hizkuntza aitzinaraztea zen. Gogoratu behar da Seaskak Hezkuntza Nazionalarekin egin zituen hitzarmenetan ukan zuen garrantzia». X

Gexan Alfaro ♦ Elkar-eko lankidea

«Euskal kulturaren aldeko langile handi bat galtzen dugu, baita adiskide bat ere. 55 urtetan hiltzea osasun arazorik ez zuelarik bitxia da. Kartzelak ez dio onik egin». X

Jakes Abeberri ♦ Enbatako arduraduna

«Kartzelak hil du Jean Louis, eta espetxean atxiki dutenak dira heriotza honen arduradunak. Haren duintasuna suntsitu dute. Euskal kulturarentzat garrantzia handia zuenez, txikitu nahi zuten». X

Antonio Campos ♦ Euskal Herriko Ikastolen Federazioko lehendakaria

«Isiltasunean, bere burua gehiegi azaldu gabe, pagatzerik ez dagoen lan ikaragarri bat egin zuen, batez ere ikastolentzat. Iparaldeko ikastolatan izan dugun gizonik preziatuena izan da. Ikastolak *ghettotik* atera zituen, prestigioa eman zien, ofizialtasuna eta laguntza ekonomikoak lortu zituen haientzat». X

Jose Maria Sors ♦ Elkar-eko gerentea

«Duela urte eta erdi Joseba Jaka galdu genuen, eta orain Maitia. Uste dut euskal kulturarentzat eta bera ibili da proiektu guztientzat jipoi handia izan dela». X

Gazteriak

«Abertzalea zen Jean Louis, eta bere guziko engaiamendu guziak pagatu ditu. Jakina da Frantziako Estatuak engaiamendu politiko batean sartuak diren jendeak lehertzeko prest dela. Arrazoin horientzat zen Jean Louis presondegitua izan». X

lizeoaren egitasmoaren aitzinarazteko. Herenegun, lanean ari zela, hil zen.

Jean Louis Maitiari azken agurra emanen diote lagun eta senideek ostiralean, Hazparneko elizan. Egun horretan bertan ehortziko dute. Bihartik aitzina, aldiz, Baionako Funerariumean izanen da gorpua, ikusi nahi duen ororentzat.

«Kartzelak ez dio onik egin, aurpegia markatuta atera da bertatik»

• Euskal kulturaren munduak doluz jantzi behar izan zuen atzo berriz, Maitiaren heriotza bat-batekoaren ondorioz. Gexan Alfaro Elkarreko sortzaileetako bat izan zen Maitiarekin batera, eta orduztik beti elkarrekin aritu dira lanean. EGUNKARIARI adierazi dionez, «euskal kulturaren aldeko gizon handi bat galdu dugu, baita adiskide bat ere. Kartzelak ez dio onik egin, aurpegia markatuta atera da bertatik».

Idea berari heldu diote Maitiaren lagun eta lankide guztiek: kartzelan bizi izandakoak ez diola onik egin. Antonio Campos Euskal Herriko Ikastolen Federazioko lehendakariaren arabera, «Jean Louis ezagututa, argi dago espetxean pasatu dituen egun horiek gehiegi izan direla berarentzat. Justiziaren beste injustizia handi bat izan da, gi-